

Helburuak

Basauriko Udalak etengabe lanean dihardu adin nagusiko gure auzotarrek, udalerritik irten gabe, ahalik eta ongizate handienaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Horretarako, bizitza aktiboago bat bilatzen dutenei beren denbora librean aprobetxatzen laguntzeko, udaleko arlo desberdinek eta erakunde autonomoek jarduera programa desberdinak prestatu dituzte.

Gizarte Ongizate arloak, adibidez, informazioa gestionatzen du, eta udalaren beraren edo gainontzeko toki- eta autonomia-erakundeen zerbitzu eta laguntzak izapidetzen laguntzen du. Lurralde Politika Arloak lanean dihardu Basauri udalerrri erabilgarriagoa egiteko asmoz pertsona nagusientzat, eta horretarako, auzo eta kale desberdinetarako sarbideak hobetzen dihardu.

Herritarren Partaidetzarako arloak, bere aldetik, Pertsona Nagusien Kontseilua sortu du kolektibo horrengana gehiago hurbiltzeko helburuz, eta herriko gai garrantzitsuen inguruko erabakiak hartzekoan horien parte hartzea ahalbideratzeko. Arlo honetatik txosten honetan agertzen den gaia bultzatzen da, Pertsona Nagusien Hilabetea eta pertsona nagusientzako Baliabideen Gida. Azken horrek, Modernizazio eta Herritarren Harremanetako Arloetatik sustatua, tresna erraz eta praktikoa izan nahi du Basauri dituen baliabide guztiak ezagutzera emateko gure udalerriko 65 urtetik gorako pertsona nagusi guztiei.

Udaleko Herritarren Partaidetzarako Departamenduak, Herritarren Harremanetarako Arloarekin batera, Nagusien Hilabetea antolatu du, Basauriko adin nagusiko herritar guztiak omendu nahian.

Lehen edizio honetan, datorren martxoan ospatuko den Nagusien Hilabetea, zenbait ekitaldi daude aurreikusita gure nagusiek ongi pasa dezaten, eta kasu batzuetan baita ere, beren eguneroko errealitateari aurre egiteko tresnak lor ditzaten.

Ekintza Plana / Ekintzak

Jardueren garapenak, eta horiek hilabete osoan luzatuko dira, jarduera asko biltzen ditu bere baitan, bai ludikoak bai heziketakoak, eta asmoa da mundu guztiak gozatzeko aukera izan dezala modu batean edo bestean.

Inaugurazioa martxoaren 1eko 11:00tan Ibaiganekeo kultur etxeko ekitaldi aretoan egin zen, eta horri hasiera Loly de Juan alkatearen agurrarekin eman zitzaion, eta jarraian adin nagusiko eta beren ibilbide profesionalagatik ezagunak diren hiru basauriarrek, Agustin Ibarrola eskultoreak, Roman Garcia historialariak eta Angel Martinezek, azken hori Aldundiko Gizarte Ongizate Arloan pertsona nagusiekin lan egin zuena, hurrengo titulua zuen mahainguruari hasiera eman zioten: "Eta 65 urtetik aurrera, zer?"

Hauek izan dira txostenak:

- O Mugi zaitez Basauritik barrena, eta horren bidez, azken urteetan Basaurin egindako irisgarritasuneko obrak aurkezten dira, zeinak bestalde Malagan aurkeztuak izan ziren, eta arlo horrek Sofia Erreginaren Irisgarritasun Unibertsala 2010 Saria lortu zuen, Arantza Leturiondok aurkeztuta, Basauriko Udaleko Lurralde Politikako Zuzendaria.
- O Pertsona nagusien aurkako tratu txarrak, Alfonso Gurpeguik aurkeztuta, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaria, zeinak gai garrantzitsu bat jorratu zuen, nahiz eta batzutan tabua den hori sufritzen duten pertsonen artean. Gero eta gehiago dira, bai etxean bai egoitzetan, tratu txarrak jasaten dituzten pertsonen kasuak. Tratu txarra ez da zerbait fisikoa bakarrik, baizik eta pertsona nagusien duintasuna eta zuzentasuna ez errespetatzea ere tratu txarra da.

Tailerrak, berriz, hauek izan dira:

- o Barre-terapia

Barre-terapia EDE Fundazioko bi irakaslek emango dute, eta lau jardunalditan emango da Basozelaiko Gizarte Etxean eta Pozokoetxeko Kultur Etxean.

Aipatu tailerretan, helburua barre egiten ikasi eta aplikatzea da, eta ulertzea ezen, barrea oso terapia ona dela ongi sentitzeko bizitzako momentu desberdinetan, eta hori erabiltzea ongi datorrela hobeto sentitzeko.

- o Haserreren eta Erruaren tailerra

Tailerra Ana Baza psiko-pedagogo eta terapeuta emozionalak eman zuen, eta aurrekoaren egitura berarekin eta leku beretan emana izan zen.

Tailer horretan, irakasleak emozioak maneijatzeko eta trabak ahalmenetan eraldatzeko sarrera moduko bat eskaini zien entzuleei.

- o Bakardadea aukeratu tailerra

Kasu honetan bi izan dira jardunaldiak, baina leku berean izan dira, modu horretan, jende guztiak parte hartzeko aukera izan zezan, inolako desplazamendutan ibili gabe. Tailerra Lola Diezek eman zuen, prestakuntzako aholkularia.

Bakardadea aukeratu Tailerrean, hezitzaileak entzuleei planteatzen die berrikusi egin behar dela Bakardadea ikusteko era. Inguruabar hori zerbait positibo eta aberasgarri bezala ikusten ikasi behar dugula. Beste helburuetako bat bakardadea beti gauza negatibo bezala ikusteko premisa apurtzea da. Jendartean aldaketa bat lortzea espero du, eta bakardadea beren aberastasun pertsonalerako espazio bat bezala ikusiko dutela, eta modu positiboan erabili dezaten, eta beren bakardadeko denbora ongi sentitu araziko dituen jarduera sortzaileetarako erabili dezaten motibatuta nahi ditu.

Aretoko dantzak tailerrak:

Areto-dantzako bi jardunaldi egin dira, lau tailerretan banatuta. Bi Urbiko Kiroldegian eta beste bi Gizarte Etxean. Horiek guztiak 18:30ean programatu dira, eta Eva Gallegok eman ditu, Dantza irakaslea Basozelaiko Gizarte Etxean. Parte hartze egokia izan da.

Ekintza-planean agertzen den azken jarduera **antzerkia eta zineko** jardunaldiak dira.

Antzerkiko lau eta zineko hiru jardunaldi egin dira, Pertsona Nagusientzako XVI. Jardunaldien barruan, Espainiako toki desberdinetako teatro-eskoletatik ekarritako obrekin. Horiek guztiak 18:30ean eta 18:00etan programatuak izan dira, hurrenez hurren, Social Antzokian.

Social Antzokian egindako antzerki jardunaldiak, aurreko urteetan ere ospatu direnak bestalde, ez daude bakarrik pertsona nagusiei zuzenduta, baina antzezpena bai, zeren eta beren eskuetan baitago soilik. Lau egunetan zehar, 892 pertsona hurbildu dira antzerki obrak ikustera.

Zinearen ikuskizunen sailean humorezko filmak jarri dira, eta protagonista gisa, aktore nagusiak agertzen zaizkigu argentinar humore fin batekin. Ukiturik errealistena espainiar Las Trece Rosas filmak jartzen du, eta horrek espainiar gerra zibila amaitu ondorengo garai hurbila gogoratzen digu.

Monitorizatuta dauden adierazleak

Ez dago arrakasta ebaluatu eta neurtuko duen dokumenturik.

Ekitaldiaren balorazioa Pertsona Nagusien Kontseilua osatzen dutenekin egindako bilera batean egiten da, eta tailerrak eta jarduerak zuzendu dituzten pertsonak bildu dituzten iritzien bidez.

Babeslea

Udala bera.

Baliabideak eta aurrekontua

Udalarenak berarenak

Garapena

Jardunaldiak planifikatu, garatu eta ebaluatzeko ardura udaleko langileen esku egon da. Hiru tailerrak antolatzeke, kanpoko pertsonak kontratatu dira, eta hitzaldiak emateko, erakundetik kanpoko hizlarien laguntza eskatu da.

Finantzazioa

Finantzazio publikoa

Zein kolektibori zuzendua egon den

Herritar guztiak

Hasiera-eguna

16/03/2011

Amaierako eguna

2011/03/20

Informazio gehiago

Informazio gehiago www.basauri.net orrian